



aztiker
SOZIOLOGIA IKERGUNEA



EUSKADIKO HERRITARREN ARTEAN, ZIBERSEGURTASUNAK ETA ZIBERDELINKUENTZIAK DUEN ERAGINA, 2023

IKERKETA KUANTITATIBOA

AURKIBIDEA

1. SARRERA	2
2. OHAR METODOLOGIKOAK.....	3
3. EMAITZAK	4
3.1. ALDAGAI SOZIODEMOGRAFIKOAK	4
3.2. INFORMATIKA ETA INTERNETAREKIN HARREMANA	8
3.2.1. INTERNETERA SARBIDEA ETA EGUNEKO KONEXIO DENBORA	10
3.2.2. INTERNET BIDEZ PRODUKTU ETA ZERBITZUAK EROSTEA.....	12
3.2.3. HAINBAT ONLINE TRESNEN EZAGUTZA ETA ERABILERA	14
3.3. ZIBERDELINKUENTZIA METODOEN EZAGUTZA ETA HAUEK PAIRATU DITUZTEN HERRITARREN EHUNEKOA.....	16
3.3.1. ZIBERDELINKUENTZIA ETA ERABILTZEN DIREN METODO EZBERDINAK	19
3.3.2. ZIBERDELINKUENTZIA ETA METODO BAKOITZAK SORTZEN DUEN KEZKA (soilik ziberdelinkuentzia kontzeptua ezagutzen dutenei egindako galderak)	21
3.3.3. HERRITARREK PAIRATUTAKO ZIBERDELITUEN TIPOLOGIA	23
3.3.4. ZIBERDELINKUENTZIAK EAEKO HERRITARREN ARTEAN DUEN ERAGINAREN LABURPENA	26
3.4. APUSTUAK EGITEKO ETA PORNOGRAFIARI LOTUTAKO WBGUNE ETA APLIKAZIOEKIN ERLAZIONATUTAKO IRUZURRAK.....	28
3.4.1. PUBLIZITATEA, SEGURTASUN-MAILA ETA IRUZURRAK APUSTUEKIN ETA PORNOGRAFIAREKIN LOTUTAKO WBGUNE ETA APLIKAZIOETAN	29
3.5. ZIBERSEGURTASUNA ETA AUTOBABESERAKO PRAKTIKAK	32
3.5.1. DATU PERTSONALEN SEGURTASUN MAILA.....	34
3.5.2. AUTOBABES DIGITALERAKO ETA ZIBERSEGURTASUNERAKO HERRITARREK DITUZTEN NEURRIAK	35
3.5.3. GIZARTEAN ZIBERSEGURTASUNA SUSTATZEKO FORMAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA.....	37
3.6. EUSKADIKO HERRITARREN PROFILAK, INFORMATIKA ETA INTERNETAREKIN DUTEN HARREMANAREN ARABERA	38

1. SARRERA

Dokumentu honetan jasotzen da Aztiker Soziologia Ikerguneak, Kontsumobidek eskatuta, *Zibersegurtasunaren eta ziberdelinkuentziaren eragina euskal herritarrengan* izenburupean egindako azterlana. 2023ko azarotik abendura bitartean egindako azterlanaren helburua ziberdelinkuentziak Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumitzaileengan duen eragina ezagutzea eta kuantifikatzea izan da, ondoren Kontsumobidek arlo horretako prestakuntza, ikuskapen eta zuzenketa estrategiak antolatu ahal izan ditzan, bai eta beste erakunde batzuekiko lankidetzara erraztu ere.

Azterketa EAEko hiru lurraldeetako adin nagusiko herritarrei egindako inkesta kuantitatibo baten bidez egin da. Zehazki, 912 pertsona elkarrizketatu dira 2023ko azaroaren 13tik 29ra.

Ikerketaren txosten orokorra zazpi ataletan banatzen da:

- Lehenik eta behin, azterketa egiteko moduari buruzko atal metodologikoa eta xehetasun teknikoak aurkezten dira.
- Jarraian, inkestatutako pertsonen aldagai soziodemografikoak aztertuko dira.
- Hirugarrenik, EAEko herritarrek informatikarekin eta Internetekin duten harremana jorratzen da. Zehazkia, Interneterako sarbidea eta konexio-denbora aztertzen dira, baita produktuak eta zerbitzuak Internet bidez erostea eta tresna digital batzuk ezagutzea eta erabiltzea ere.
- Laugarren atalean, ziberdelinkuentzia-metodoen ezagutza, horiek herritarren artean eragiten duten kezka eta horiek jasan dituzten pertsonen ehunekoa aztertzen dira.
- Bosgarrenik, apustuen eta pornografiaren webgune eta aplikazioekin lotutako iruzurrak lantzen dira.
- Jarraian, herritarrek zibersegurtasunari eta eguneroko bizitzan hartzen dituzten autobabes-praktikei buruz ematen dituzten erantzunak azaltzen dira, baita gizarteak arlo horretan duen prestakuntzari eta kontzientziazioari buruz dituzten iritziak ere.
- Azkenik, EAEko herritarren artean profil desberdinak sortzen edo osatzen dira, informatikarekin duten harremanaren eta Internet erabiltzen duten moduen arabera.

Sarrera amaitzeko, eskerrak eman nahi zaizkie ikerketa honetan parte hartu duten inkestatutako pertsonari, haien ekarpenik gabe ezinezkoa izango baitzen azterketa egitea.

2. OHAR METODOLOGIKOAK

ERABILITAKO TEKNIKA: Egituratutako inkesta Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrei.

UNIBERTSOA: EAEn bizi den 18 urtetik gorako herritarrak. Gaur egun **1.855.152** pertsona dira (Eustat, 2022).

LAGINA: **912** herritar.

LAGINKETA: Herritarren aukeraketa egiteko prozedura polietapikoa erabili da, herrialdea eta udalerraren tamaina aldagaiak erabilita lagin proportzionala eskuratzeko. Ondoren, herritarrak hautatu dira herrialdea, sexua eta adinaren kuoten arabera.

GALDETEGIAK: Kontsumobide Institutuko ordezkariekin lankidetzan, landu nahi ziren gaiei buruzko galderak biltzen dituen galdetegi diseinatu da. Elkarrizketa batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz egin direnez, bi galdetegi diseinatu dira, bat hizkuntza bakoitzean.

LANDA LANA: Inkestak 2023ko azaroaren 13tik 29ra bitartean egin dira. Inkesta batzuk telefonoz egin dira, eta beste batzuk online. Inkesten batez besteko iraupena 11 minutu eta erdikoa izan da, eta, oro har, herritarren erantzuna oso ona izan da.

AKATS TARTEA: **%± 3,3**koa lagin osoarentzat, konfiantza maila **%95,5**koa denean eta **p = q = %50,0**.

Akats tartea adin tarteen arabera

	Inkesta kop.	Akats tartea (% ±)
18 eta 29 urte artean	122	8,9
30 eta 44 urte artean	201	6,9
45 eta 64 urte artean	337	5,3
65 urte edo gehiago	252	6,2
Guztira	912	3,3

DATU TEKNIKOAK (LABURPENA):

Unibertsoa: EAeko adin nagusiko herritarrak (**1.855.152**)

Lagina: **912** herritar.

Landa-lana: 2023ko azaroaren 13tik 29ra bitartean. Elkarrizketak euskaraz zein gaztelaniaz egin dira, inkestatutako pertsonak nahiago izan duen hizkuntzan.

Akats tartea: **%± 3,3**koa lagin osoarentzat, konfiantza maila **%95,5**koa denean eta **p = q = %50,0**.

3. EMAITZAK

3.1. ALDAGAI SOZIODEMOGRAFIKOAK

Inkestatutako pertsonen aldagai soziodemografikoen azterketak adierazten du emakumeen presentzia (%51,9) gizonena (%48,0) baino pixka bat handiagoa dela. Ez-bitar gisa identifikatzen diren pertsonak %0,1 dira. Adinaren kasuan, %64,6k 45 urte baino gehiago ditu, eta %35,4k 18 eta 44 urte bitartean. Lurralde-banaketari dagokionez, lagina batez ere Bizkaian kontzentratzen da (%52,5), gero Gipuzkoan (%32,6) eta, azkenik, Araban (%14,9). Hiru aldagai horiek (sexua, adina eta herrialdea) kuoten bidez kontrolatu dira inkestak egiterakoan.

2.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi diren pertsonak laginaren %5,5 dira; %11,5 2.000 eta 10.000 biztanle arteko udalerrietan bizi dira; %38,0 10.000-100.000 biztanle bitarteko udalerrietan; eta, azkenik, %45,0, 100.000 biztanletik gorako hirietan (talde horren barruan daude Barakaldo eta EAeko hiru hiriburuak). Oro har, laginaren banaketa Euskadiko biztanleriaren banaketa errealaren oso antzekoa da.


Inkestatutako pertsonen erdiak (%50,6) lanean ari dira, %8,1 langabezian dago, heren bat erretiratu edo pentsioduna da edo etxeko lan ez-ordainduetan dihardu eta %5,4k ikasi egiten du. Ikasketa-mailari dagokionez, %13,9k ez du ikasketarik edo lehen hezkuntzako ikasketak ditu, %6,1ek bigarren hezkuntzako, batxilergoko edo Lanbide Heziketako ikasketak ditu eta, azkenik, %39,7k unibertsitate-ikasketak ditu.

Azkenik, inkesta egin zaien pertsonen euskararen ezagutza aztertuz gero, euskaldunen ehunekoa %38,6 da (hizkuntza ulertzen eta hitz egiten du); %30,3k euskara ulertzen du, baina ez du hitz egiten, eta gainerako %31,1ek ez du ulertzen edo hitz egiten.

Inkestatutako pertsonen generoa


	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Emakumezkoa	473	51,9
Gizonezkoa	438	48,0
Ez binarioa	1	0,1
Guztira	912	100,0

Iturria: "Euskadiko herritarren artean zibersegurtasunak eta ziberdelinkuentziak duten eragina. Aztiker, 2023".

**Adin tartea**


	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
18-29 urte artean	122	13,4
30-44 urte artean	201	22,0
45-64 urte artean	337	37,0
65 urtetik gora	252	27,6
Guztira	912	100,0

Iturria: "Euskadiko herritarren artean zibersegurtasunak eta ziberdelinkuentziak duten eragina. Aztiker, 2023".

**Bizi den herrialdea**

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Bizkaia	479	52,5
Gipuzkoa	297	32,6
Araba	136	14,9
Guztira	912	100,0


Iturria: "Euskadiko herritarren artean zibersegurtasunak eta ziberdelinkuentziak duten eragina. Aztiker, 2023".



Udalerrriaren tamaina


	Lagina		EAEko unibertsoa
	Maiztasuna	Ehunekoak%	Ehunekoak %
2.000 biztanletik behera	50	5,5	5,0
2.000 eta 10.000 biztanle artean	105	11,5	13,9
10.000 eta 100.000 biztanle artean	347	38,0	41,0
100.000 biztanletik gora	410	45,0	40,1
Guztira	912	100,0	100,0

Iturria: "Euskadiko herritarren artean zibersegurtasunak eta ziberdelinkuentziak duten eragina. Aztiker, 2023".

**Lan egoera**


	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Lan ordaindua (jardun osoa)	401	44,1
Lan ordaindua (jardun murriztua)	60	6,7
Langabezian	74	8,1
Etxeko langilea	26	2,9
Ikaslea edo ikasi+lan egin	49	5,4
Jubilatua, pentsionista	290	31,9
Beste bat	8	0,8
Guztira	908	100,0

Iturria: "Euskadiko herritarren artean zibersegurtasunak eta ziberdelinkuentziak duten eragina. Aztiker, 2023".

**Ikasketa maila**

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Ikasketarik ez, lehenengo mailakoak baino baxuagoak	26	2,9
Lehenengo mailakoak	101	11,1
Bigarren mailakoak (DBH...)	73	8,1
Goi-mailako batxilergoa	117	12,8
Lanbide Heziketa	230	25,3
Unibertsitateko ikasketak	299	32,9
Masterra, Doktoretza	63	6,9
Guztira	909	100,0


Iturria: "Euskadiko herritarren artean zibersegurtasunak eta ziberdelinkuentziak duten eragina. Aztiker, 2023".



Euskara gaitasuna

	Lagina		EAEko unibertsoa
	Maiztasuna	Ehunekoa %	Ehunekoa %
Ondo ulertu eta hitz egin	349	38,6	35,0
Ulertu bai, hitz egin nekez	274	30,3	19,4
Ez ulertu ez hitz egin	280	31,1	45,6
Guztira	903	100,0	100,0

Iturria: "Euskadiko herritarren artean zibersegurtasunak eta ziberdelinkuentziak duten eragina. Aztiker, 2023".



3.2. INFORMATIKA ETA INTERNETAREKIN HARREMANA

Inkestaren lehen zatian, EAEko herritarrek informatikarekin eta Internetekin duten harremana aztertzen da. Zehazki, azterketa horren parte dira Interneterako sarbidea eta eguneroko konexio-denbora, produktuak eta zerbitzuak Internet bidez erostea edo ordainketa eta kudeaketa ekonomikoetarako tresna digital batzuk ezagutu eta erabiltzea. Jarraian, herritarrek eremu bakoitzean emandako emaitzak deskribatzen dira.

Interneterako sarbidea eta eguneroko konexio-denbora

Inkestatutako ia pertsona guztiek dute Interneterako sarbidea (%95,9). Beraz, Interneteko konexiorik ez duten pertsonak biztanleriaren %4,1 dira, eta, gehienbat, 65 urtetik gorakoekin adin-tartean kontzentratzen dira.

Interneten nabigatzeko gehien erabiltzen diren gailuak telefono mugikorra (pertsonek %93,9k aipatzen du), ordenagailua (%81,5), Smart TVa (%61,5) eta tablet-a (%51,1) dira. Oro har, pertsona bakoitzak 2,9 gailu ditu batez beste Internetera sartzeko.

Egunero Internetera konektatutako minutuei dagokienez, inkestatutako pertsonen batez bestekoa 183 minutukoa da, hau da, egunean hiru ordu baino gehixeago. Konexioaren batez besteko denborarekiko alderik esanguratsuen aldagai hori adin-tartearekin gurutzatzen denean agertzen da. Inkestatutako pertsona zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta denbora gehiago igarotzen du egunean Internetera konektatuta. Adibidez, 18 eta 29 urte bitarteko pertsona bat, batez beste, egunean 5 orduz konektatzen da Internetera, eta 65 urtetik gorako pertsona bat, berriz, egunean ordubete pasatxo.

Produktuak eta zerbitzuak Internet bidez erostea

Online erosketei erreparatzen badiegu, EAEko biztanleen hiru laurdenak adierazten du noizbait Internet bidez erosi duela (%74,9), eta beste laurdenak, aldiz, ez du inoiz erosi (%25,1). Era berean, inkestatutako hamar pertsonatik lauk (%40,4) online produktuak eta zerbitzuak erosi dituzte azken astean. Berriz ere, adina da erantzun horretan diferentzia markatzen duen aldagai nagusia: 45 urtetik beherako pertsona guztiek erosi dute noizbait Internet bidez, eta ehuneko hori %84,1era jaisten da 45-64 urtekoen kasuan, eta %34,5era 65 urtetik gorakoekin kasuan.

Gehien kontsumitzen diren produktu eta zerbitzuen artean, "arropa, oinetakoak eta moda" dago, izan ere, Internet bidez kontsumitzen duten pertsonen bi herenek aipatu dute. Bigarrenik, "produktu elektronikoak (mugikorrak, ordenagailuak, TBak, bideojokoak, kamerak...)"; hirugarrenik, "bidaia-txartelak (hegazkina, trena, autobusa, blablacar...), hotelak edo apartamentuak", eta laugarrenik, "liburuak, musika, filmak, komunikabideetako harpidetzak, entretenimendua...". (%46,5; %41,1 eta %38,0, hurrenez hurren).

Oro har, herritarren %84,3 oso edo nahiko seguru sentitzen da produktuak eta zerbitzuak Internet bidez erosterako orduan, eta gainerako %15,7a ez dago oso seguru edo batere seguru praktika hori egiterako momentuan. Segurtasun-sentsazioa nahiko antzekoa da biztanleria-talde guztietan, baina zertxobait txikiagoa da 45 urtetik gorakoen artean.

Zenbait tresna digital ezagutzea eta erabiltzea

Atal hau amaitzeko, eragiketa ekonomikoak egiteko eta kudeatzeko tresna digital batzuk ezagutzeari eta erabiltzeari buruz galdetu zaie herritarrei. Zehazki, azterketa bi tresnatan zentratu da: online banka aplikazioak eta Bizum-a.

Bi tresna digital horietako bakoitza herritarren ia %90ek ezagutzen du. Erabilerari dagokionez, ostera, online banka Bizum-a baino erabiliagoa da. Tresnen ezagutzari eta erabilerari buruzko galderak konbinatzen badira, datuek honako errealitatea erakusten dute:

- Online banka: EAEko biztanleen %76,3k erabiltzen du; %13,5k ezagutzen du, baina ez du erabiltzen, eta gainerako %10,1ek ez du ezagutzen. Erabiltzaileen ehunekoa handiagoa da 30 eta 64 urte bitartekoen artean.
- Bizum-a: Euskadiko biztanleen %67,4k erabiltzen du; %21,8k ezagutzen du, baina ez du erabiltzen, eta gainerako %10,8k ez du ezagutzen. Erabiltzaileen ehunekoa handiagoa da 18 eta 29 urte bitartekoen artean.

Azkenik, azpimarratzekoa da bi tresna digitalen erabileraren segurtasun-pertzepzioa antzekoa dela. Herritarren %80 inguru seguru sentitzen da horiek erabiltzerakoan, %15 ez da seguru sentitzen eta gainerako %5ak ez daki edo ez du erantzuten.


3.2.1. INTERNETERA SARBIDEA ETA EGUNEKO KONEXIO DENBORA

Ondorengo zerrendatik zein gailu dituzu Interneteko sarbidearekin?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Telefono mugikorra	855	93,9
Ordenagailua	742	81,5
Smart TV	560	61,5
Tableta	465	51,1
Ez du Interneterako sarbidea duen gailurik	37	4,1
Guztira	911	100,0

Oharra: Erantzun anitzeko galdera


Iturria: "Euskadiko herritarren artean zibersegurtasunak eta ziberdelinkuentziak duten eragina. Aztiker, 2023".



(Interneterako sarbidea dutenentzat) Gutxi gorabehera zenbat denbora pasatzen duzu Interneten konektatuta egun bakoitzean? Gailu guztiak kontuan hartuta

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Noizean behin konektatzen naiz, ez egunero	59	6,7
30 min baino gutxiago egunean	60	6,9
30 eta 59 min artean	143	16,5
1'00" eta 1'59" min artean	142	16,3
2'00" eta 2'59" min artean	126	14,5
3'00" eta 3'59" min artean	97	11,1
4'00" eta 4'59" min artean	64	7,3
5'00" eta 5'59" min artean	49	5,6
6'00" eta 6'59" min artean	23	2,7
7'00" eta 7'59" min artean	18	2,1
8 ordu edo gehiago	88	10,2
Guztira	869	100,0
Batezbestekoa (min / eguneko)	183 minutu (3 ordu)	


Iturria: "Euskadiko herritarren artean zibersegurtasunak eta ziberdelinkuentziak duten eragina. Aztiker, 2023".



Gutxi gorabehera zenbat denbora pasatzen duzu Interneten konektatuta egun bakoitzean? Gailu guztiak kontuan hartuta

	Adin-tartea				Guztira
	18-29 urte artean	30-44 urte artean	45-64 urte artean	65 urtetik gora	
Eguneko denbora Interneten (min)	296	232	182	72	183

Iturria: "Euskadiko herritarren artean zibersegurtasunak eta ziberdelinkuentziak duten eragina. Aztiker, 2023".




3.2.2. INTERNET BIDEZ PRODUKTU ETA ZERBITZUAK EROSTEA

Orain Internet bidez egiten diren erosketez galdetuko zaizu. Inoiz erosi al duzu Internet bidez produktu edo zerbitzurik?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai, azken astean	367	40,4
Bai, azken hilabetean	182	20,0
Bai, azken hiru hilabetean	65	7,1
Bai, azken urtebetean	42	4,7
Bai, baina duela urtebete baino gehiago	25	2,7
Ez, inoiz ez	229	25,1
Guztira	910	100,0

Iturria: "Euskadiko herritarren artean zibersegurtasunak eta ziberdelinkuentziak duten eragina. Aztiker, 2023".



(Internet bidez noizbait erosi dutenei) Zein produktu edo zerbitzu erosi ohi duzu?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Arropa, oinetakoak, moda	425	62,5
Produktu elektronikoak (mugikorrek, ordenagailuak, TVak, bideojokoak, kamerak...)	316	46,5
Bidaietako bileteak (hegazkina, tren, autobusa, blablacar...), hotel edo apartamentuak	279	41,1
Liburuak, musika, pelikulak, komunikabideetara suskripzioak, entretenimendua...	259	38,0
Ekitaldietarako sarrerak (kontzertuak, zinema, kirol ekitaldiak...)	224	32,9
Etxeko gauzak (etxetresnak, altzariak, sukaldeko gauzak, dekorazioa...)	203	29,9
Edertasun produktuak (makilajea, kremak, parfumeak...)	183	27,0
Elikagaiak edo janaria (esaterako, supermerkatuen bidez)	173	25,4
Kirola egiteko produktu edo arropa	166	24,5
Haurrentzako jostailuak edo arropa	133	19,5
Medikuntza eta ongizatea (medikamentuak, suplementuak...)	72	10,6
Jardineritza eta brikolajea	62	9,2
Autoak edo autoen konponenteak, motorrak...	27	3,9
Profesionalen zerbitzuak (abokatuak, iturginak, diseinatzaileak...)	25	3,7
Beste bat	16	2,4
Guztira	680	100,0

Oharra: Erantzun anitzeko galdera


Iturria: "Euskadiko herritarren artean zibersegurtasunak eta ziberdelinkuentziak duten eragina. Aztiker, 2023".



Internet bidezko erosketak egiten, normalean, zein neurritan sentitzen zara seguru?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Oso seguru	133	19,5
Nahiko seguru	441	64,8
Ez oso seguru	92	13,5
Batere seguru ez	15	2,2
Guztira	681	100,0

Iturria: "Euskadiko herritarren artean zibersegurtasunak eta ziberdelinkuentziak duten eragina. Aztiker, 2023".




3.2.3. HAINBAT ONLINE TRESNEN EZAGUTZA ETA ERABILERA

Ondorengo online tresnak ezagutzen al dituzu?

	Ezagutzen du	Zerbait entzun du	Ez du ezagutzen	Guztira
Banka online (bankuko gestioak Internet bidez egiteko tresna)	81,3	8,6	10,1	100,0
Bizum (diru transferentziak lagun edo ezagunen artean egiteko tresna)	80,2	9,0	10,8	100,0


Iturria: "Euskadiko herritarren artean zibersegurtasunak eta ziberdelinkuentziak duten eragina. Aztiker, 2023".



(Tresna ezagutzen dutenentzat) Eta, tresna hauek erabiltzen al dituzu?

	Ez du tresna hau instalatuta edo ez du erabiltzen	Hilero baino gutxiago erabiltzen du	Hilero erabiltzen du	Astero erabiltzen du	Egunero erabiltzen du	Guztira
Banka online	15,1	5,2	16,3	38,1	25,3	100,0
Bizum	24,5	15,4	23,0	28,6	8,5	100,0


Iturria: "Euskadiko herritarren artean zibersegurtasunak eta ziberdelinkuentziak duten eragina. Aztiker, 2023".



(Tresna ezagutzen dutenentzat) Hauen segurtasun maila zenbatekoa dela uste duzu?


	Oso segurua da	Nahiko segurua da	Ez da oso segurua	Ez da batere segurua	ED / EE	Guztira
Banka online	26,6	56,4	7,6	4,2	5,2	100,0
Bizum	23,8	51,8	10,2	5,3	8,9	100,0

Iturria: "Euskadiko herritarren artean zibersegurtasunak eta ziberdelinkuentziak duten eragina. Aztiker, 2023".

**Hainbat tresna digitalen ezagutza eta erabileraren inguruko laburpena**

	Lagina			EAEko biztanleriara estropolatuta		
	Ezagutu eta erabili ohi du	Ezagutu bai, baina ez du erabiltzen	Ez du ezagutzen	Ezagutu eta erabili ohi du	Ezagutu bai, baina ez du erabiltzen	Ez du ezagutzen
Banka online	76,3	13,5	10,1	1.416.346	250.966	187.840
Bizum	67,4	21,8	10,8	1.250.694	404.273	200.186

Iturria: "Euskadiko herritarren artean zibersegurtasunak eta ziberdelinkuentziak duten eragina. Aztiker, 2023".



3.3. ZIBERDELINKUENTZIA METODOEN EZAGUTZA ETA HAUEK PAIRATU DITUZTEN HERRITARREN EHUNEKOA

Atal honetan, ziberdelinkuentzia-metodoen ezagutzari, metodo horiek herritarren artean sortzen duten kezka eta metodo horiek jasan dituzten pertsonen ehunekoari buruzko azterketaren emaitzak aurkezten dira.

Ziberdelinkuentzia eta erabilitako metodoak

Ziberdelinkuentzia kontzeptua edo Internet bidez egiten diren delituak aski ezagunak dira Euskal Autonomia Erkidegoko adin nagusiko biztanleen artean. Inkestatutako pertsonen hiru laurdenek (%73,4) erantzun dute kontzeptu hori ezagutzen dutela, %21,0k gaiari buruz zerbait entzun dutela diote, eta gainerako %5,5ek ez dakite zer den. Adin-tarteen arabera, 30 eta 64 urte bitartekoak dira gai horri buruz gehien dakitenak. Gazteenen artean eta, are gehiago, 65 urtetik gorakoen artean, ezagutza txikiagoa da.

Zehazki, elkarrizketetan 8 ziberdelituk osatutako zerrenda bati buruz galdetu da, bakoitzari buruzko ezagutza-maila zein den jakiteko. Emaitzak oso portzentaje desberdinak erakusten ditu, aipatutako ziberdelitu motaren eta inkestatutako pertsonaren profilararen arabera. Oro har, ziberdelinkuentzia-metodoak ezagunagoak dira 65 urtetik beherakoentzat, unibertsitate-ikasketak dituztenentzat eta digitalizazio-maila handia dutenentzat (Internet bidezko erosketak, tresna digitalen erabilera, etab.). Aipatzekoa da aldagai horiek guztiz lotuta daudela haien artean, normalean gazteak izaten baitira ikasketa gehien izaten dituztenak eta digitalizazio-maila handiena erakusten dutenak.

Ziberdelinkuentzia-metodoen ezagutza-mailari erreparatzen badiogu, emaitzek erakusten dute EAEko biztanleek gehien ezagutzen duten metodoa "identitate-lapurreta online" dela (%75,7). Jarraian, antzeko ezagutza-maila duten lau ziberdelitu identifikatu dira (herritarren %69 eta %63 artean ezagutuak): "Phishing-a", "informazioa ezagutaraztea edo errebelazioa", "Smishing-a" eta "pasahitzarekin egindako eraso". Seigarrenik, "online bidezko erromantze edo amodio-iruzurrak" daude (%51,6ko ezagutza) eta, zazpigarrenik, "kriptoiruzurra" (%46,0). Azkenik, herritarrek gutxien ezagutzen duten ziberdelitua "Ransomware" da, %35,8rekin.

Ziberdelinkuentziak eta metodo bakoitzak sortzen duten kezka

Oro har, ziberdelituen berri duen biztanleriaren hiru laurdenak ziberdelinkuentzia-metodoek asko edo dezente kezkatzen dute. Kezka-maila antzekoa da bai arlo pertsonalean, bai lan edo enpresa-arloan ere.

Bestalde, inkestan planteatutako ziberdelitu mota gehienek kezka-maila handia sortzen dute; zehazki, herritarren %80-85 asko edo nahikoa kezkatzen dute, eta %15-20 gutxi edo batere ez. Hala ere, bi ziberdelituk kezka gutxiago eragiten diete herritarrei: "kriptoiruzurra" eta "online bidezko erromantze edo amodio-iruzurrak". Bi kasu horietan, biztanleriaren %40k baino gehiagok erantzun du kezka gutxi edo batere ez diela eragiten.

Herritarrek jasandako ziberdelituen tipologia

Ziberdelituen berri duten pertsonen galdetu zaie metodo horietakoren bat jasan duten edo saiakeraren baten susmoa izan duten. "Phishing-a" da pertsona gehienek sufritu duten delitua (ziberdelitu hau ezagutzen dutenen %10,4k jasan du); ondoren, "Smishing-a" (%9,1), "informazioa ezagutaraztea edo errebelazioa" (%6,3) eta "pasahitzarekin egindako eraso" (%5,9) daude. Bestalde, egiten saiatu direla gehien susmatzen diren delituen artean (delitua gertatu gabe), lau eraso mota berberak agertzen dira, "Ransomware" delituarekin batera.

Ziberdelitu edo saiakera hori jasan duten aldiari dagokionez (horren susmoa duten pertsonen kasuan), hamarretik batek esan du azken astean jasan duela (%10,2); %17,0k azken hilabeteetan jasan du, %23,8k azken hiru hilabeteetan, eta %26,1ek esan du azken urtean jasan duela. Laburbilduz, ziberdelitua edo ziberdelitu-saiakera jasan duten herritarren hiru laurdenek baino gehiagok azken 12 hilabeteetan jasan dute.

Bestalde, delituaren ondorengo unean egin dituzten ekintzei edo hartu dituzten neurriei dagokienez, ia hiru pertsonatik batek (%31,4) adierazi du ez duela ezer egin delitua edo saiakeraren aurrean. Proporzioan, ziberdelitua jasan ondoren neurririk hartu ez duten pertsonen ehunekoa handiagoa da 65 urtetik gorakoen eta ikasketa gutxi dituztenen artean. Hala ere, pertsonen profil horrek gutxiago erabiltzen ditu Internet eta tresna digitalak, eta, beraz, ziberdelitu gutxiago jasaten dituzte. Hau da, jasandako delituen aurrean ekintzarik egin ez duten gazteen ehunekoa txikiagoa bada ere, adin-tarte horretan erantzunik gabeko delitu gehiago daude.

Ziberdelituei erantzuteko ekintzaren bat aipatu duten pertsonen errepertorio gero, honako hauek nabarmentzen dira: "gaiari buruzko informazioa Interneten kontsultatzea" (%28,9), "lagunei aholkua eskatzea" (%21,0) eta "poliziarenean salatzea" (%18,1). Alde horretatik, aipatzekoa da gazteek joera handiagoa dutela poliziaren aurrean salaketa jartzeko adinekoek baino.

Ziberdelinkuentziari buruzko datuak EAEko biztanleengana estrapolatzea

Beraz, inkestako hainbat galderaren bidez ziberdelituei buruzko informazioa jaso da. Erantzun hauek kontuan hartuta (ezagutza, delitu saiakera bat sentitu izanaren susmoa eta delitua jasan izanaren konstantzia), ondorengo da ateratzen den erradiografia orokorra:

- EAEko 18 urtetik gorako bost pertsonatik batek ziberdelituen bat jasan du (%20,4). Datuak biztanleria orokorrera estrapolatuko balira, 378.987 pertsona inguru izango lirake. Inkestatutako pertsona zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta handiagoa da ehunekoa; izan ere, ikasketa gehiago izan arren, digitalizazio-maila handiagoa dute eta arrisku handiagoa hartzen dute.

- Hiru pertsonatik batek susmatu du ziberdelitu-saiakera bat jasan duela, baina azkenean ez da gauzatu edo ez da "tranpan erori" (%33,4). Kasu horretan, 620.453 pertsona izango lirateke EAE mailan. 45 urtetik beherako biztanleen artean, talde hau da nagusi (%45 inguru).
- Azkenik, laginaren %46,1ek ez du ziberdeliturik jasan, ez eta horren susmorik izan ere. Datuak biztanleria osora estrapolatuz, guztira 855.712 pertsona dira. Erantzun hori nagusitzen da 65 urtetik gorakoen artean, Internet eta tresna digital asko erabiltzen ez duten eta produktuak online erosten ez dituztenen artean.


Azkenik, azpimarratzekoa da delitu ohikoenak "Phishing-a" eta "Smishing-a" direla, biztanleria osoaren % 6-7k pairatu baitu. Burutu gabeko delituen susmoei dagokienez, bi metodo horiek ere lehenengo bien artean agertzen dira, baina ordena desberdinean. Zehazki, "Smishing" saiakera biztanleriaren %27,9k jasan du, eta "Phishing" saiakera, berriz, %20,1ek.

3.3.1. ZIBERDELINKUENTZIA ETA ERABILTZEN DIREN METODO EZBERDINAK

Ziberdelinkuentzia delituak dira Internet bidez egiten diren delituak, informazioa edo dirua lapurtzeko helburua dutenak kasu gehienetan. Galdera honetan aipatu aurretik, ezagutzen al zuen delitu mota hau (ziberdelinkuentzia)?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Bai, ezagutzen nuen	668	73,4
Bai, zerbait entzunda nuen	191	21,0
Ez, ez nuen ezagutzen	50	5,5
Guztira	910	100,0


Iturria: "Euskadiko herritarren artean zibersegurtasunak eta ziberdelinkuentziak duten eragina. Aztiker, 2023".



Ziberdelinkuentzia delituak dira Internet bidez egiten diren delituak, informazioa edo dirua lapurtzeko helburua dutenak kasu gehienetan. Galdera honetan aipatu aurretik, ezagutzen al zuen delitu mota hau (ziberdelinkuentzia)?

	Adin-tartea				Guztira
	18-29 urte artean	30-44 urte artean	45-64 urte artean	65 urtetik gora	
Ziberdelinkuentziaren ezagutza	65,9	75,8	83,8	61,2	73,4

Iturria: "Euskadiko herritarren artean zibersegurtasunak eta ziberdelinkuentziak duten eragina. Aztiker, 2023".



Orain zerrendatuko zaizkizu ziberdelitu ohikoenak. Ezagutzen al dituzu?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Identitate lapurreta (suplantación de identidad) online	691	75,7
Phishing: Informazio sensiblea eskuratzeko (kreditu txartelaren pina, pasahitzak...) metodoa, gezurrezko email edo webgune bidez	632	69,3
Informazioa ezagutaraztea (informazioaren errebelazioa). Datu pertsonalak elkarbanatu edo publiko egitea baimenik gabe	620	68,0
Smishing: Mugikorrera mezu faltsuak bidaltzea, erabiltzaileak programa 'kutsatuak' deskargatzeko, informazioa edo dirua eskatzeko	614	67,3
Erasoa pasahitzarekin: Zibergaizkileek biktimaren pasahitzak hainbat modutan eskuratzen dituzte eta erabiltzailearen baimenik gabe hainbat zerbitzutara sartzeko erabiltzen dituzte	575	63,1
Online bidezko erromantze edo amodio-iruzurrak	470	51,6
Kriptoiruzurra. Kriptotxanponekin erlazionatutako lapurreta edo iruzurrak	420	46,0
Ransomware: Zifratzearen bidez datuak edo fitxategiak bahitzea, haien erabilera oztopatuz edo eragotziz	326	35,8

Iturria: "Euskadiko herritarren artean zibersegurtasunak eta ziberdelinkuentziak duten eragina. Aztiker, 2023".




